

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Axtroki Merkatarikartaren dirulaguntza urteko ekintzak aurrera eramateko

ESPEDIENTEA: 2026MDIR0002

INTERESDUNA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA (IFK: G75089904)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduerak mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3500 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du AXTROKI MERKATARI ELKARTEA-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta AXTROKI MERKATARI ELKARTEA-ren (IFK: G75089904) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- AXTROKI MERKATARI ELKARTEA-ri 3500 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa(k) antolatzeko: ElkarTEak 2026 urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren 6. klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60, 2.100€, ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 3500 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0100.481.431.50.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026MDIR0002-Alkate erabakia/Resolución (AXTROKI MERKATARI ELKARTEA)

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2026/05/07 15:36:57